

8. ARTIKULUA

Hizkuntza-esparrua

1. Hezkuntza-sistemaren lehenetsuneko hizkuntza-helburua da ikasle guztien komunikazio- eta hizkuntza-konpetentzia garatzea, eleaniztasunaren eta kulturartekotasunaren ikuspegitik euskararen erabileran sakonduz. Batxilergoa amaitutakoan, ikasle guztiek oso ondo menderatu behar dituzte hizkuntza ofizialak, ahozko zein idatzizko adierazpenean, eta jarioz eta zuzentasunez aritzeko gai izan atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan.
2. Hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza antolatzeko eta hizkuntzak tratatu eta erabiltzeko irizpideak ikastetxeen autonomiaren esparruan zehaztuko dira, ikasleen eta haien ingurunearen errealitate soziolingüistikoa kontuan hartuta. Ikastetxeak hartzen dituen erabaki guztiak ikastetxearen hizkuntza-proiektuan zehaztu behar dira hezkuntza proiektuaren barne; hala, hizkuntza-proiektu horretan planifikatu behar dira ikasleek hizkuntzak ikasteko, erabiltzeko eta hizkuntzekiko jarrera positiboa garatzeko bideak, bat etorrita I. eranskinean zehazten den irteera-profilarekin. Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak hizkuntza-proiektuon jarraipena eta ebaluazioa egingo du.
3. Euskararen irakaskuntzari dagokionez, hizkuntza-proiektuak curriculumaren eta ikastetxearen helburuak zehaztuko ditu. Era berean, euskararen ingurumen-erabilera ziurtatzera bideratutako eskolaz kanpoko jardueren proposamenak jaso behar ditu.
4. Komunikazio- eta hizkuntza-konpetentziaren garapena zeharka landuko da curriculumeko ikasgaietan.
5. Euskal Hezkuntza Sistemaren berandu sartzen diren ikasle atzerritarrak hartzeko eta haiei hizkuntza-arreta emateko, ikasle horien inklusioa ahalbidetuko duten prestakuntza-programa integralak beharko dira.
6. Irakasleak prestatzeko eta hobetzeko plan bat egin behar da, hizkuntzen esparruan hizkuntza- eta metodologia-gaitasunak hobetzeko.